

SASKIBALOIA. Charles Byrdek ezin izan du garaipena lortu Gasteizko taldearekin jokaturiko azken partidari

Capraboren talde senarekin topo egin du Tauk

Partidaren erritmoa Edu Torresen taldearen menpean egon da minutu gehienetan, eta horrek kalte handia egin dio Baskoniari



Tomasevic aurreko partida batean. Jugoslaviarrak 22 puntu sartu zituen atzo.

Jon Rejado | GASTEIZ

Bigarren goz galdu du Baskoniak Caprabo Lleidaren kontra aurtengo denboraldian, jarrera kaskarrarekin jardun baitzuen minutu gehienetan. Edu Torresen mutilek talde izaerari eutsi zioten partida osoan, eta merezimenduz irabazi zuten Charles Byrdek Taurekin jokaturiko azken norgehiagokan.

Partida onak egin ahal izateko defentsan oinarritu izan du Baskoniak bere jokoa, eta atzoko partidaren lehen erdian ez zen horrelakorik ikusi. Scavoliniren kontrako partidaren kantxaratu zen taldearekin alderatuz, ezberdintasun gehiegi ikusi ziren atzo, defentsak hutsune gehiegi utzi baitzituen. Caprabo Lleida, jarrera bikain bati eutsiz, bi saskipeetan nagusitu zen, eta errebotearen jabetza lortu zuen Oberto, Tomasevic eta Scolaren aurrean. Horri esker, saskiratze errazak lortu zituen Edu Torresen taldeak, eta ezohiko partziala lortu zuen hasierako minutuetan, 20-6.

Jarrera aldaketa bultzatzeko, Andres Nocioni kantxaratu zuen Ivanovicek, Baskoniako jokalaririk sutuena. Une horretatik aurrera gorako bidea hartu zuten gasteiztarrek, baina inolako presarik gabe. Taldearen jarrerari beste bultzada bat emateko, Ivanovicek Corchiani atera zuen kantxatik eta Byrdi aukera eman zion. Corchianik ez zuen partidaren erritmoarekin asmatu, eta aldaketarekin, taldearen jokoak gora egin zuen. Byrdek, Taurekin azken partida zuen arren, profesionaltasun bikaina erakutsiz, ondo jokatu zuen.

CAPRABO LLEIDA 65
TAU BASKONIA 60

Caprabo Lleida: Victoriano (3), Alvarez (8), Grima (21), Bramlett (9), Ruffin (12) —hasierako bostekoa—, Tamames (4), Romero, Ramos (6), Comas (2).

Tau Baskonia: Chirs Corchiani (2), Hugo Sconochini, Sergi Vidal (2), Dejan Tomasevic (22), Fabrizio Oberto (6) —hasierako bostekoa—, Charles Byrd (3), Andres Nocioni (10), Laurent Foirest (5), Luis Scola (5), Gabriel Fernandez (3)

Taldeak: 22-13; 34-27 (atsedenean); 45-49; 65-60.

Epaileak: Martin Bertran, Garcia, Ortega. Kaleratuak: Fabricio Oberto, Luis Scola.

Lehen erdiaren bukaeran gasteiztarren jokoak poliki-poliki gora egin arren, Ivanovicek atsedenean emandako mitina erabakigarria gertatu zen. Jarrera aldaketa nabaria izan zen bigarren erdiaren hasierako minutuetan, eta 0-11 partzial bati esker, aurrea hartu zuten markagailuan. Caprabok, ordea, ez zuen ordura arte egindako lana alferrik galtzen uzteko asmorik, eta bere zaleen oihuei esker, lehian jarraitu zuten.

Tau Baskoniaren jokoa ilundu egin zen berriro azken laurdenean, eta talde bezala jokatu beharrean, bakarkako jokaldien bidez saiatu ziren erabakitzen. Scola eta Oberto aulkian zirela (faltan ondorioz), Caprabo Lleidak garaipenaren bidea hartu zuen. Talde senari eutsiz, Edu Torresenek aurrea hartu zuten partida bukaera arte, eta merezimenduz irabazi zuten.

ESKUBALOIA. Suediak 33-22 egurtu zuen Islandia; Alemaniak, berriz, 28-23 irabazi zion Danimarkari eta, estreinakoz, finalean da

Erredakzioa | DONOSTIA

Suediak eta Alemaniak jokatuko dute Europako Txapelketako finala, gaur (18:00). Islandiak eta Danimarkak balentria handia lortu dute finalerdietara sailkatuta, baina final atarian amore eman behar izan dute fabortoen aurrean. Stockholmeko Globe Arena kiroldegian bildutako 14.000 zaleen babesarekin, Suediak ez zuen inolako arazorik izan Islandia menderatzeko (33-22). Alemaniak, aldiz, gehiago sufritu behar izan zuen Danimarkari irabazteko (28-23); azkenean, baina, finalerako txartela lortu zuten, euren ibilbidean estreinakoz.

Suediak azken lau Europako Txapelketatik hiru irabazi ditu, eta aurreko urtea irabazteko gogo bizia dute. Etxean jokatzeko gain, belaunaldi baten azken txapelketa izan baitaiteke. Os-

Suediak eta Alemaniak jokatu dute finala, Islandia eta Danimarka menderatuta



CHRISTOF STACHE / AP

Suediako Wislander eta Islandiako Kristjanson, borrokan, atzo.

tegunean Danimarkaren aurka galdu izana istripua izan zela agerian utzi zuen atzo Suediak. Islandia partidarik galdu gabea zen, baina etxeko taldeak txiki-txiki egin zuen islandiarren defentsa bigarren zatian. Lehenengoan nola ahala eutsi zioten galtzaileek Wislander, Lovgren eta enparauen erasoko jokoari —atsedenaldian 14-12 zen aurretik Suedia—, baina Svenssonen geldituak eta suediarren eraso zorrotzak erabakigarriak izan ziren markagailuko aldea areagotzeko (18-13 eta 23-16).

Azken hoge minutuetan islandiarrek amore eman zuten, eta Suediak areagotu egin zuen diferentzia. Etxeko taldean Petterson eta Lovgren izan ziren golegile onenak, seinatuta gol sartuta, eta Wislanderrek bost egin zituen. Islandiako taldean, Stefansson izan zen onena, sei gol. Biharko finala irabazita,

hirugarren Europako Txapelketa irabaziko luke Suediak jarraian.

Alemaniak azken minutuetan erabaki zuen

Bigarren finalerdia estuagoa izan zen. Danimarkak eta Alemaniak lehenengo zatian sailkatu nahi zuten Europako Txapelketako finalerako, eta, azkenik, alemaniarrek lortu zuten helburua. Lehen zatia orekatua izan zen —atsedenaldian 13-12 ziren aurretik alemaniarrek—, eta bigarren zatian hastapean Danimarkak aurretik jartzea lortu zuen (15-14, 35. m.). Baina alemaniarren zorionerako, Zerbe eta Baur erasoko jokoan asmatzen hasi ziren —zazpi gol sartu zituen bakoitza—, eta markagailuari buelta emateaz gain, azken minutuetara abantaila erosoarekin iritsi ziren alemaniarrek.